



MIRIBILLA ESKOLA



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtza
“EGFak etorkizunean inbertitzen du”

48003-BILBAO-BIZKAIA

Tel. 944166820/fax944162073

015360aa@hezkuntza.net

CEIP MIRIBILLA HLHI

IKASTETXEAREN PROIEKTU DIGITALA

IKASTETXEAREN IZENA: MIRIBILLA HLHI

IKASTETXEAREN KODEA: 015360

DATA: 2023/06/16



2023/06/16



1. SARRERA

Ikastetxearen testuingurua

Kokapena, mailak, ikasleria, klaustroa, familien maila sozioekonomikoa eta baliabide teknologikoak, ikastetxearen ikuspegia eta baloreak...

Miribilla HLHI Bilboko Bilbao La Vieja auzoan kokatutako ikastetxe publikoa da, eta Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasketak lerro batean eskaintzen ditugu, D ereduan, hau da, 2 urtetik 12 urtera bitarteko ikasleak ditugu.

Eskolako klaustroa 36 pertsonen osatzen dugu: 3 zuzendaritza taldean, jantokiko arduraduna, Berrikuntza arduraduna, 2 ingelesa irakasle, 1 heziketa fisiko irakasle, 2 urteko laguntza, musika irakaslea, 2 HIPI, 5 HPB taldean, 3,5 hezitzaile, 1 A eredurako laguntza, 1 aholkularia eta 13 tutore.

Miribilla HLHI zentroa izen bereko auzoan dago, Bilbo Zaharrarekin mugakide. Ikasleak, batez ere, Zabala, San Frantzisko eta Bilbo Zaharra auzoetatik datoz, eta ikastetxetik urrunago dauden auzoetako ikasleak ere jasotzen ditu zenbait arrazoi direla medio, ikastetxean eskolatuta daude (Otxarkoaga, Zorrotza, Basauri).

Bestalde, aipatzekoak dira zenbait datu:

- Ikastetxearen zaugarritasun indizea %100 da.
- Bilbo Zaharra (ikasle gehien auzoa), Bilboko udalerriko familia-errenta baxuena duen hirugarren auzoa da.

Zentro honi berezitasuna ematen dion beste ezaugarrietako bat kultura-aniztasuna da, baita familien jatorriari dagokionez ere.

- Ikastetxeari berezitasuna ematen dion beste faktore garrantzitsu bat familien mugikortasuna da, ikasturte osoan ikasleek altak eta bajak ohikoak izatea eraginez.

Kasu batzuetan, senideak beren seme-alaben hezkuntza-prozesutik kanpo daude edo itxaropen txikiak dituzte eskola-erakundearen.

- Familien ehuneko handi bat enplegu prekarioetan eta ezegonkorretan aritzen da, eta horietako askok gizarte-soldatak jasotzen dituzte. Horrek eragiten du etxean dituzten baliabide digitalak beti kalitaztekoak ez izatea (mugikorrek, tabletak.. ordenagailuak izan beharrean). Gure



ikasleriaren % 41a etorkina da, %58,4a jatorriz bertakoa da. %48,6 emakumezkoak eta %51,4 gizonezkoak.

Euskadiko Indize Sozioekonomiko eta Kulturala (ISEK) 0 eta 1 artean kokatzen da, 1 baxua izanda. Eskolako ISEKaren batz bestekoa -1,5 da baxuaren azpitik kokatzen gaitu.

Arlo akademikoaz gain, euskararen erabilera indartzea eta Europak ezartzen dituen garapen iraunkorrerako helburuak gureak egin ditugu eta, horregatik mende honetarako hezkuntza-erronka nagusiak jorratzea da gure helburu nagusia gure ikaslegoaren identitatea eraikitzeko: pentsamendu kritikoa eta kultura digitala lantzea; ingurumenarekiko jarrera eta kontsumo arduratsua garatzea; bizitzan zehar ikasten jarraitzeko trebetasunak garatzea; gatazken konponbide baketsuan heztea; ziurgabetasunaren onarpena lantzea; ekitatean eta hezkidetzan heztea bazterketa egoerak hautemateko sentsibilizatuz; bizimodu osasungarria izateko ohiturak garatzea; proiektu kolektibo baten parte sentitzea (ongizate emozionala bermatzea); eta lankidetzan aritzea elkarrekin bizitzeko.

Azpiegiturak

Ikastetxearen hornikuntza teknologikoa, konektibitatea, plataformak, zerbitzu digitalak eta mantenua...

ZENTROAREN EZAUGARRIAK

Miribilla HLHIn Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako irakaskuntza ematen da, 2 eta 12 urte bitartekoak. Jantoki-zerbitzua ere badu. Eraikina irisgarria da igogailua eta arrapala dituelako ikasleentzat.

Beheko solairuan daude irakasleen gela, atezaintza, eskola jantokia, zuzendaritza, idazkaritza eta ikasketa burutzako bulegoak, gimnasioa eta aldagelak, bai eta irakasleen eta ikasleen komunak ere.

Lehenengo solairuan daude Haur Hezkuntzako gelak, ziklo horretako tutoretza, ikus-entzunezkoen gela, liburutegia eta psikomotrizitate gela, irakasle eta ikasleen komunak.

Bigarren solairuan daude Lehen Hezkuntzako gelak, PT, ALE, Hezkuntzako lehen, bigarren eta hirugarren zikloko tutoretzak, ludoteka, musika-gela, plastika-gela, ordenagailu-gela eta biltegi txiki bat, bai eta irakasleen eta ikasleen komunak ere. Azkenik, azotean zati batean estalita dago, eta, ahal den guztietan, jolastoki gisa erabiltzen da Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako.

Irakasleentzako eta ikasleentzako komunak ere baditu.

Guztira, zentroak 3 patio ditu: bat haur-hezkuntzarako mugatua, beste bat futbol- eta saskibaloi-kantxekin eta eremu estalia, eta, azkenik, bat azotean partzialki estalia.



HORNIKUNTZA DIGITALAri dagokionez,

Eskolako zerbitzaria eta honen funtzionamendurako behar diren gailu digital guztiak eraikinean daude kokatuta.

2.010. urtetik sare konexioa daukagu (eskola 2.0) eta horrekin batera gela bakoitzean ordenagailu bat izatea lortu genuen.

Gainera, sarera konektaturik 4 inprimagailu ditugu (4ak fotokopiagailuak direnak, bi kolorez, 2 zuzribeltzez)

Honetaz gain, 4., 5. eta 6. mailetan ordenagailu eramangarriak ditugu, ikasle bakoitzeko, gelako lanak modu digitalean aurrera eraman ahal izateko.

Haur Hezkuntzako geletan zein Lehen Hezkuntzako gela guztietan arbela digitala edo pantaila digitalak ditugu (ingeleza, laguntza gelak eta musikako gelak barne). Baliabide hauek Hezkuntza Sailak berritzen dituen ehinean aldatzen ditugu.

Informatika gela bat dugu hantxe ikasleriak beraien lanak egiteko.

Bestetik, ELKARTENET erakundearekin elkarlan estua mantentzen dugu eta beraiekin familiek ordenagailuak erabil ditzatela guraso eskola egiten da, AMPAK antolatuta. Modu honetan, arrakala digitalarekin bukatzeko aukera ematen diegu familiei, eta prezio sinbolikoan ere berriztatuko eramangarriak saldu zaizkie ELKARTENET proiektuari esker.

ELKARTENETek eskolan martxan jarri zuen beraien lehenbiziko proiektua: TXIKILINUX sistema eragilearekin ordenagailu batzuk jarri zituen HH 5 urteko gelan eta LHko 1., 2. mailetan. Era honetan ikasleek hasierako kontaktua izango dute teknologia digitalarekin.

Administrazioarekin komunikaziorako bai irakasle bai zuzendaritza taldeak hezkuntzako korreoaren bitartez egiten da @irakasle.eus.

Eskolako irakasleriaren artean gmail plataforma erabiltzen dugu zentruaren domeinuarekin, @miribillaeskola.net,

Whatsapp ere erabiltzen dugu, klaustroaren taldea sortuta.

Beste plataforma eta zerbitzuak:

Hezkuntza WEB orrialdea eta bere barnean dauden zerbitzuak, pertsonala kudeatzeko EIZU, ikuskaritza, berrikuntza... dokumentazioak eskuratzeko, eta HEZKUNTZA ATARIA matrikulazioa, DAEda, jantokia ebaluazioak, absentismoa... kudeatzeko.

Ekipoen mantenuaz Hezkuntzak eskeintzen digu CAU zerbitzua.

Konektibitateari dagokionez, wifia badago eskola osoan, bai ikasleentzat bai irakasleentzat Eskolako web orrialde ofiziala, <https://miribillaeskola.net/>



Proiektuaren justifikazioa

Proiektuak nola lagunduko dio ikastetxeari eta zergatik parte hartzen da.

Hezkuntzari buruzko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak, abenduaren 29ko 3/2020 Lege Organikoak [LOMLOE] aldatuak, Espainiako hezkuntza-sistemaren helburuetako bat honako hau da, artikulua 2.1): "ikasleak gizarte digitalean erabat txertatzen direla bermatzeko, gaikuntza eta baliabide digitalen erabilera segurua eta giza duintasuna, konstituzio-balioak, oinarriko eskubideak eta, bereziki, norbanakoaren eta taldearen intimitatea errespetatzen eta bermatzen ditu".

95/2022 Errege Dekretua, Haur Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen; I. eranskinean, kompetentzia digitala agertzen da etapako funtsezko kompetentzietako bat. Hitzez hitz, honako hau adierazten du: "etapa honetan alfabetatze digitalaren prozesua hasten da"

Lehen Hezkuntzako gutxieneko irakaskuntzak eta antolamendua ezartzen dituen 157/2022 Errege Dekretuaren 6. artikuluan, printzipio pedagogikoei buruzkoan, hau adierazten da: "Etaparen horretako zenbait arlotan, irakurmena, ahozko eta idatzizko adierazpena, ikus-entzunezko komunikazioa, kompetentzia digitala, sormena, espiritu zientifikoa eta ekintzaitza sustatzea arlo guztietan landuko dira". 9. Artikuluan kompetentzia digitala funtsezko kompetentzia dela adierazten da.

Ikasturteko hasierako ebazpenean azaltzen den bezala, aurreko eskolan Ikastetxeko Proiektu Digitala sortu behar da. Hezkuntza komunitate osoaren proiektu partekatua izan behar da, koherentzia emateko eta teknologien erabilera gidatzeko. Ikastetxea kompetentzia digitala garatzeko erreferentzia izango da.

Honegatik, Miribilla HLH Ikastetxeko Proiektu Digitalak eskolako egungo errealitateaz jabetzen lagunduko du. Errealitate hori oinarria izanda, eskolako marko-digitala eraikiko dugu erabiliko diren gailu horien hautaketarekin, egonkortzearekin eta amankomuneko erabilerari indartuz. Bertako irakasle zein ikasleen kompetentzia digitala garatzeko tresna bihurtuko da. Horretarako, helburuak eta hauek lortzeko ekintzen plangintza zehaztuko da eta, helburu horien lorpen maila neurtzeko, ebaluazio irizpideak ere.



Ikastetxeko Proiektu Digitalaren plangintza eta arlo digitalean ikaskuntza eraginkorra sustatzeko proiektu hau Europatik datorren ildo berria da. Bide digital berri hau DigCompOrg izenarekin ezagutzen den Europan erakundeentzat kompetentzia digitala garatzeko esparruan aurkitzen da. Gure ingurumen digitala hobetzeko asmoarekin parte hartzen dugu Europako markoa oinarria delarik.

Ikastetxearen Proiektu Digitalaren bitartez nahi dugu:

- Eskolaren egoera ebaluatzea, IKTen erabilerari dagokionez, eraldaketa-prozesu bat diseinatu ahal izateko.
- Proiektu digitala estrategia digitala planifikatzeko funtsezko baliabidetzat hartzea.
- Gure eskola digitalki egokia den eskola bihurtzea.

Elaborazio prozesua eta lan-taldea

Lehentasunak zehaztu.

Planifikazio maila zehaztu.

Nor izango da eragilea?

Hau guzti hau aurrera eramateko, Digitalizazio Batzordea osatuko da. Batzorde honetan zuzendaritza taldea, digitalizazio arduraduna eta beste irakasle batzuk egongo dira, posiblea den ehinean IKT, BeA...

Batzorde honen lehentasuna eskolako diagnostikoa egitea izango da eta horren emaitzekin **Digitalizazio Plana** sortuko dugu, eskolarako helburu aproposenak zehaztuta eta lorpen adierazleen jarraipena aztertu eta bultzatuz.

Honetarako, lehenengo hiruhilabetean SELFIE inkesta pasatu zaie ikasle eta irakasleei, emaitzekin eskolako **AMIA** egin da eta, hau abiapuntu gisa hartuta, eskolarako digitalizazio helburuak ezarri dira.

Proiektu Digitalak Hezkuntza Proiektuari eta Urteko Planari egiten dion ekarpena

Proiektu honen bitartez:

Hezkuntza Proiektuari dagokionez,

Gure ikastetxearen helburua da ikasleek gizabanako gisa ikastea eta prestatzea, eta XXI. mendeko ikasleen irteera-profila eskuratzea.

Ikastetxearen Plan Digitalak bat etorri behar du hemen jasotzen den testuinguru instituzional zabalarekin:

beste dokumentu instituzional batzuk, hala nola Ikastetxearen Hezkuntza Proiektua eta



Curriculum Proiektua,
bat etortzea eta osagarriak izatea.

Urteko Planari egiten dion ekarpena

- Ikasturtean zehar prestakuntza-saioak ezartzeko behar diren baliabideak antolatzea eta ematea.
- Teknologia ikasleengan duen eraginaren emaitzak baloratzeko ebaluazio-prozesu bat ezartzea, aurrerapenak eta zailtasunak antzemanaz.
- Teknologia digitaleko langile kualifikatuen tailerrak, hitzaldiak edo saioak: segurtasuna, sareen erabilera zuzena, aplikazioen erabilera.
- Gai digitalei buruzko funtsezko informazioa biltzen duten eskoletarako infografiak egitea: gailuaren erabilera-arauak, segurtasun-neurriak, sareen erabilera egokia.
- Ikasturtearen hasieran edo gatazka bat sortzen denean, testuinguru digitaleko araudia eta jokabide-kode etikoak (ziber-dekalogoak) gogoraraztea.
- Sormena eta ikaskuntza-prozesua sustatzen duten eduki digitalen aniztasunerako sarbidea erraztea.
- Ikasleei dagokienez: proiektuak egitea askotariko tresnak erabiliz (internet, testu-prozesadoreak, infografiak...), informazioa biltzeko, antolatzeko, emaitzak azaltzeko edo sormenezko produkzioak egiteko.



2. IKASTETXEAREN EGOERAREN ANALISIA

Errealitatearen azterketa, prozesuetan IKTen erabileraren gaineko hausnarketa.

SELFIE edo beste autoebaluazio tresna batetik jasotako emaitzen hausnarketa.

Azterketa hau egiteko, SELFIE for SCHOOLS tresna erabili dugu [auto-hausnarketa], teknologia digitalak, ikaskuntza eraginkorra eta berritzailea lortzeko.

Digitalaki eskumena duten hezkuntza-erakundeentzako Europako Batzordearen esparruan oinarrituta [Dig-compOrg] SELFIEk lagundu digu nabarmentzen zer ari den ondo funtzionatzen, zer alderditan hobetu beharra dago, eta gure zentroaren lehentasunak zeintzuk izan beharko diren.

Tresna honekin Zentroaren egoeraren argazki bat lortu dugu, erabilerari buruzkoa.

Teknologia digitaletan, irakasleen, eta zuzendaritza taldearen iritziak kontuan hartuta.

Gure ikastetxearen abiapuntua ezagutzeko, funtsezko elementuak: pedagogikoak, teknologikoak eta antolakuntzakoak azterketa bat egiteko aukera ematen digu.

SELFIE bidez egindako autodiagnostikoari esker lortzen dugun informazioa funtsezkoa da egungo egoera ulertzea eta ekintzara bideratutako erabakiak hartzeko. Txosten hau Zentroaren egungo egoerari buruzko informazioa ematen du, zuzendaritza-taldeen ikuspegitik.

Irakasleak eta ikasleak, bai antolamendu-arloetan, bai arlo pedagogikoetan. prozesu horietan teknologiak zenbateraino erabiltzen eta integratzen dituzten.

Arloen laburpena

Hau da talde bakoitzeko erantzunen batez bestekoaren laburpena (zuzendaritza-taldea, irakasleak eta

ikasleak] zortzi arloetako bakoitzerako. Atal batzuetan ezin da ikasleak.



A. LIDERGOA

INDARGUNEAK

Irakaskuntza-modalitate berriak: irakasleek zuzendaritza-taldearen laguntza sentitzen dute teknologia digitaleko irakaskuntza-eredu berriak ikasteko.

AHULEZIAK

Ikastetxean ez dago disenatutako estrategia digitalik.

B. ELKARLANA ETA SAREAK

INDARGUNEAK

Irakasleriaren arteko elkarlana.

AHULEZIAK

Laguntza teknikoa Azpiegitura egokia eta ziurra

Datuen babesa

Ziber-dekalogo eza

Arrakala digitala

C. AZPIEGITURAK ETA HORNIKUNTZA

INDARGUNEAK

Irakaskuntza eta ikaskuntzarako gailu digitalak

Internet konexioa

AHULEZIAK

Laguntza teknikoa Azpiegitura egokia eta ziurra

Datuen babesa

Ziber-dekalogo eza

Arrakala digitala

D. GARAPEN PROFESIONAL JARRAITUA

INDARGUNEAK

Irakasleriaren artean lana eta praktikak konpartitzea emaitzen hobekuntzarako.

AHULEZIAK

Ikas-irakaskuntzarako eredu berriak teknologia berrietan oinarrituta.

E. PEDAGOGIA: BALIABIDEAK ETA LAGUNTZAK

INDARGUNEAK

Komunikazioa hezkuntza-komunitatearekin

Linean dauden hezkuntza-baliabideak



AHULEZIAK

Baliabide digitalak sortzea.

Ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzea

F. PEDAGOGIA: IKASGELAN INPLEMENTATZEA

INDARGUNEAK

Ikasleen beharrei egokitzea, berrikuntza indartzea.

ikasleen inplikazioa

AHULEZIAK

Diziplinarteko proiektuak

Sormena sustatzea

G. EBALUAZIORAKO PRAKTIKAK

AHULEZIAK

Ikaskuntzari buruzko autoreflexioa

H. IKASLEEN KONPETENTZIA DIGITALAK

INDARGUNEAK

Jokabide segurua

Jokabide arduratsua

AHULEZIAK

Gainerakoen lana aitortzea

Eduki digitalak sortzea

**AMIA analisia****Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.****AMIA analisia**

Indarguneak, ahultasunak, aukerak eta mehatxuak.

Faktore negatiboak

Ahuleziak (barne-faktoreak)
Ez dago disenatutako estrategia digitalik.
Ez dugu ebaluatzen irakas-ikaskuntzaren prozesua teknologia digitalaren bitartez.
Azpiegitura egokia eta ziurra Datuen babesa Ziber-dekalogo eza Arrakala digitala
Ikas-irakaskuntzarako eredu berriak teknologia berrietan oinarrituta.
Baliabide digitalak sortzea. Ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzea
Diziplinarteko proiektuak. Sormena sustatzea
Ikaskuntzari buruzko auto hausnarketa
Egile-eskubideei dagokienez, ez zaio errekonozimendurik ematen gainerakoan lanari.
Eduki digitalak sortzea
Eskola saioetan teknologia digitalei garrantzia ematerakoan, irakasleek segurtasun eta gaitasun

Mehatxuak (kanpo-faktoreak)
Ez daude ikasleentzako gailu nahikorik Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntzako 1., 2. eta 3.
Ditugun gailuak askotan arazo teknologikoak dituzte, horrek dakarren lanaren atzerapenarekin.
Hezkuntza-Premia Bereziak dituzten ikasleentzako programen falta.
ARRAKALA DIGITALA eta familien konpetentzia digitalaren maila baxua eta kasu batzuetan gailu egokiak falta dira etxeetan.

**Faktore positiboak**

<u>Indarguneak (barne-faktoreak)</u>
Irakaskuntza-modalitate berriak: irakasleek zuzendaritza-taldearen laguntza sentitzen dute teknologia digitaleko irakaskuntza-eredu berriak ikasteko.
Azpiegitura nahikoa da, 4., 5. eta 6. mailakoentzat, nahiko gailu baitaude.
Irakaskuntza eta ikaskuntzarako gailu digitalak (arbelak, pantallak, minieramangarriak...)
Internet konexioa
Laguntza teknikoa
Irakasleriaren arteko elkarlana.
Irakasleriaren artean lana eta praktikak konpartitzea emaitzen hobekuntzarako.
Komunikazioa hezkuntza-komunitatearekin
<u>Linean dauden hezkuntza-baliabideak</u>
Teknologia digitalak erabiltzen dira hezkuntza-komunitateko kide desberdinekin komunikatzeko.
Ikasleen segurtasuna eta erantzukizuna.
Ikasleen beharrei egokitzea, berrikuntza indartzea.
<u>ikasleen inplikazioa</u>
Teknologia, komunikatzeko momentuan ematen digun ziurtasuna, ikasle, familia eta irakasleekin.

<u>Aukerak (kanpo-faktoreak)</u>
Teknologiaren erabilerari buruz eztabaidatzeko prestasuna eta interesa. Formazioak bultzatu
Zuzendaritza – taldea teknologia digitalak erabiltzen dituzten irakaskuntza- eta ikaskuntza-eredu berrien garapena babesteko prest dago.
Ikas-komunitatea elkarlana egiteko prest dago.
Klaustrokideak teknologia berriak erabiltzen hasten dira gainerako ikaskideekin batera. Horregatik, errazagoa da elkarrekin ikasten jarraitzea eta aurrera egitea.
ELKARTENET erakundearekin elkarlana.

Autoebaluazioaren ondorioak**Hausnarketa eta AMIA**

Irakaskuntza-modalitate berriak: irakasleek zuzendaritza-taldearen laguntza sentitzen dute teknologia digitaleko irakaskuntza-eredu berriak ikasteko: Formakuntza egokiak antolatuko ditugu.

Azpiegitura nahikoa da, 4., 5. eta 6. mailakoentzat, nahiko gailu baitaude. Informatika gelarako lehentasuna 1., 2., eta 3. mailakoentzat

Irakasleriaren artean lana eta praktikak konpartitzea emaitzen hobekuntzarako.

Komunikazioa hezkuntza-komunitatearekin tresna digitalen bidez

Linean dauden hezkuntza-baliabideen bilaketak eta zentruaren beharretara egokituak

Teknologia digitalak erabiltzen dira hezkuntza-komunitateko kide desberdinekin komunikatzeko.

Ikasleei zentruaren domeinuan korreoa egin.

Ikasleen segurtasuna eta erantzukizuna. Ziber-dekalogoia diseinaturik

Ikasleen beharrei egokitzea, berrikuntza indartuz

ikasleen inplikazioa bermatu arrakala digitaletik sahiestuz



Teknologiak, komunikatzeko momentuan ematen digun ziurtasuna, ikasle, familia eta irakasleekin ziurtatu

Autoebaluazioaren ondorioak

Hausnarketa eta **AMIA** tresnatik ateratako ondorioak.

Indarguneak optimizatu aukerak areagotzeko

Irakaskuntza-modalitate berriak: irakasleek zuzendaritza-taldearen laguntza sentitzen dute teknologia digitaleko irakaskuntza-eredu berriak ikasteko: **Formakuntza egokiak antolatuko ditugu.**

Azpiegitura nahikoa da, 4., 5. eta 6. mailakoentzat, nahiko gailu baitaude. **Informatika gelarako lehenetasuna 1., 2., eta 3. mailakoentzat**

Irakasleriaren artean lana eta praktikak konpartitzea emaitzen hobekuntzarako.

Komunikazioa hezkuntza-komunitatearekin **tresna digitalen bidez**

Linean dauden hezkuntza-baliabideen bilaketak eta **zentruaren beharretara egokituak**

Teknologia digitalak erabiltzen dira hezkuntza-komunitateko kide desberdinekin komunikatzeko. **Ikasleei zentruaren domeinuan korreoa egin.**

Ikasleen segurtasuna eta erantzukizuna. **Ziber-dekalogoa diseinaturik**

Ikasleen beharrei egokitzea, **berrikuntza indartuz**

ikasleen inplikazioa bermatu **arrakala digitaletik sahiestuz**

Teknologiak, komunikatzeko momentuan ematen digun ziurtasuna, ikasle, familia eta irakasleekin **ziurtatu**

Ahuleziei aurre egin aukerak aprobeatzeko

Ez dago disenatutako estrategia digitalik. **Formakuntza jasotzen ari gara moodlegune plataformaren bitartez**

Ez dugu ebaluatzen irakas-ikaskuntzaren prozesua teknologia digitalaren bitartez.

kalifikatzeko ez ezik, ikaskuntzaren aurrerapena aztertzeke ere balio duten datuak biltzea.

Online testak eta ikasleen jarraipenerako softwareak ebaluazioa aro digitalera egokitzeko moduak dira.

Azpiegitura egokia eta ziurra, **CAUtik mantenimendua egokia**

Datuen babesa **ziber-dekalogoa diseinatu**

Arrakala digitalatik **sahiesteko familiei erraztea ekipoen erosketak ELKARTENET erakundearekin lanean**

Ikas-irakaskuntzarako eredu berriak teknologia berrietan oinarrituta.

Baliabide digitalak sortzea. **Formazio egokia jasotzea**

Ikaskuntza-ingurune birtualak erabiltzea



Ikasleen eta irakaslearen arteko elkarreragin didaktikoa ahalbidetuko duten tresna informatikoak bilatzea

Diziplinarteko proiektuak **Sormena sustatzeko**

Egile-eskubideei dagokienez, ez zaio errekonozimendurik ematen gainerako lanari.

Eduki digitalak sortzeko **formazioak jasotzea**

Eskola saioetan teknologia digitalei garrantzia ematerakoan, **irakasleei segurtasun eta gaitasun nahiko bermatzea.**

Indarguneak optimizatu **mehatxuak** indargabetzeko

Formakuntza egokiak

Informatika gelarako lehenetsua 1., 2., eta 3. mailakoentzat

Irakasleriaren artean lana eta praktikak konpartitzea emaitzen hobekuntzarako.

Ikasleei zentruaren domeinuan korreoa egin eta erabili irakasleen mezuak eta lanak jasotzeko.

Ziber-dekalogo diseinatu

Berrikuntza indartuz

Komunikatzeko ziurtasuna, ikasle, familia eta irakasleekin ziurtatu

Arrakala digitaletik sahiestu

Ahuleziei eta mehatxuei aurre egin

Ebaluaziorako datuen bilketa, online testak egitea.

Mantenimendu egokia.

Ziber-dekalogo diseinatu.

ELKARTENET erakundearekin elkar lana.

Formazio egokia jasotzea.

Tresna informatikoak bilatzea.

Sormena sustatu.

Irakasleei segurtasun eta kompetentziak bermatzea.

**3. HELBURUAK ETA EKINTZAK****LG lidergoa eta gobernanza**

Helburua		
LG1 Tekno Pedagogia Batzordea sortzea eta funtzioak betetzen direla ziurtatzea.		
Deskriptorea	Epea	
LG 1.1 Ikaskuntza digitalerako teknologien ahalmena argi markatzen da.	23/25	
Adierazlea	Ehunekotan	Helmuga
Tekno Pedagogia Batzordearen zeregina zehaztu da.		2023/09/30
Irakasleriak formakuntza jasotzen du		2023/2025

EKINTZAK LG 1	BALIABIDEAK	ARDURADUNAK	EPEA	EGOERA
Tekno Pedagogia Batzordea antolatzea eta zereginak zehaztea.	Klaustroa	Zuzendaritza taldea		
Irakasle eta ikasle etorri berrientzako harrera planean Tekno Pedagogiari dagokion atala integratu.	Zuzendaritza Batzordea	Tekno Pedagogia Batzordea		
Berrikuntzarako proposamenak egitea, aztertzea eta hala badagokio inplementatzea.		Batzordea		



Helburua		
LG 2 Zuzendaritza-taldeak IKT koordinatzailearekin batera Plan digitalari bultzatzea		
Deskriptorea		Epea
LG 2.1 Planifikazioa errezatzaileetan oinarritzen da eta aldi berean, oztopoei heltzen zaie.		2023/2025
LG 2.4 Aro digitalerako ikaskuntza lerrokaturik dago lehentasun zabalagoekin.		2024/2025
Adierazlea LG 2.1	Ehunekotan	Helmuga
Eskolak parte hartzen du berrikuntza teknopedagogikoan.		
Eskolako Plan digitala ikasgeletan inplementatzen da.		
Eraldaketa digitalean irakasleria inplikatzeko da		
Adierazlea LG 2.4		
Maila guztietan zehaztuta daude ikaskuntza digitalerako lehentasunak.		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IPD bultzatu	Giza baliabideak	Zuzendaritza taldea		
IPD egin eta klaustrokideei azaldu	Giza baliabideak	Digitalizazio batzordea		
Formakuntzarako irakasleei errazten zaie esparrua eta baliabideak.	Giza baliabideak	Digitalizazio batzordea		
Ikasleen IKT profila mailaz maila zehaztu	Irakasleria	Batzordea		
Ziber-dekalogoia diseinatu	klaustro	Batzordea, Elkartenet eta zuzendaritza taldea		

**II Irakaskuntza Ikaskuntza**

Helburua		
II 1 Elkarlana eta talde lana bultzatu, ikasleen digitalizazio profila lortzeko		
Deskriptorea		Epea
II 1.1 Pertsonala eta ikasleak gai dira arlo digitalean.		2022/2026
Adierazlea II 1.1	Ehunekotan	Helmuga
Formakuntza digitala ondo lerrokatuta dago mailetan.		
Eskolako Plan digitala ikasgeletan inplementatzen da.		
Eraldaketa digitalean irakasleriak ikasleria motibatzen du.		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Materiala partekatu	Giza baliabideak	Irakasleria		
Talde dinamikak burutu	Denbora: Astean saio bat HH eta LH ko taldeak	IPD batzordea		
Esparru digitalak eta IKT baliabideak zehaztea praktika onak trukatzeko	Eskolan dauden baliabide digitalak	Zuzendaritza taldea IKT		
Eskolako baliabide digitalak erabiltzea	Irakasleak, Batzordea, eskolaz kanpoko ekintzetan ere	Batzordea AMPA Elkartenet erakundea		
Egindako lanak web orrian eskegitzea	Elkartenet	Batzordea		

**GP Garapen profesionala**

Helburua		
GP 1 Irakasleriaren %80ak kompetentzia digitalean A2 edo B1 izatea.		
Deskriptorea	Epea	
GP 1.3 EGPa lerroturik dago banakako eta antolatetako premiekin	2024/06/30	
GP 1.5 EGP egiaztatu/ziurtatuak lortzeko aukerak sustatzen dira	2025/06/30	
Adierazleak GP 1.3, 1.5	Ehunekotan	Helmuga
Formakuntza bermatzen da.		
Eskolako batzordeak laguntza eskeintzen du.		
Praktika onak elkar-trukatzen dira		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Formakuntzan parte hartzea bultzatu		batzordea	Ikasturteetan zehar	
Irakasleen arteko praktika onak trukatu eta laguntza eskeini	Ikas-egoerak, IKTak	IPD batzordea Zikloko koordinatzaileak	Ikasturteetan zehar	
Esparru digitalak eta IKT baliabideak zehaztea praktika onak trukatzeko	Eskolan dauden baliabide digitalak	Zuzendaritza taldea IKT	Ikasturteetan zehar	

EJ Ebaluazio jardunbideak

Helburua		
EJ 1 Ebaluazio jardunbideak hobetzeko, ziklo-maila bakoitzean erabilgarriak izan daitezkeen IKT tresnak erabiltzeari bultzatzea.		
Deskriptorea	Epea	
EJ 1.3 Autoebaluazioa eta berdinen arteko ebaluazioa sustatzen da.	2025/06/30	
EJ 3.4 Ikaskuntzaren analisiarentzat jardunbide-kode bat dago	2025/06/30	
Adierazleak	Ehunekotan	Helmuga
Ebaluaziorako tresnak aztertu		
Ebaluaziorako IKT tresnak agertzen dira programazio didaktikoetan.		
Eskolako batzordeak laguntza eskeintzen du.		



Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
IKTen bidezko ebaluazioan gaitasun-ikuspegia sustatzea	Klaustro IKT arduraduna	batzordea		
Ikasleen partaidetza bultzatu.	Klaustro IKT arduraduna	IPD batzordea Zikloko koordinatzaileak		
Esparru digitalak eta IKT baliabideak ebaluazioetan inplementatzen dira	Eskolan dauden baliabide digitalak Klaustroa	Zuzendaritza taldea IKTarduraduna BeAtarra eta IPD batzordea		

AZ AZPIEGITURAK ETA HORNIKUNTZA

Helburua		
AZ 1.Eskolako baliabide digitalak aztertzea eta berrizteko estrategiak planifikatzea, Hezkuntza eta berriztu programaren bitartez		
Deskriptorea	Epea	
AZ 2.1 Erabilera arduraturako arauak daude ezarrita	2024/06/30	
AZ 2.5 Ezberdintasun eta inklusio digitalekin erlazioaturiko arriskuei heltzen zaie	2023/2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Ziber-dekalogoia diseinatzen da, eta arauak ezartzen dira		
Arrakala digitaletik sahiesten saiatzen da		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Eskolako ekipamendua aztertu eta inbentarioa eguneratu	IKT arduraduna BeAtarra eta IPD	IKT arduraduna		
Irakasleen erantzukizuna edozein inzidentzia egonda, komunikatzea arduradunari.	Klaustroa	IKT arduraduna BeA		
Elkartenetekin lankidetzan aritzen jarraitzea, arrakala digitala minimizatzeko helburuari jarraipena emateko	Elkartenet AMPA Klaustroa	BeAtarra Zuzendaritza taldea		

**EC EDUKIAK ETA CURRICULUMA**

Helburua		
EC 1 Teknologia digitalen ezarpena partekatzea, ikasleen beharretara egokitzeko eta talde-lana sustatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EC 1.5 Hezkuntza baliabide irekiak sustatzen eta erabiltzen dira.	2023/2026	
EC 2.4 Ikaskuntza egiazko testuinguruan sustatzen da.	2024/2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Praktika onak elkartrukutzen dira		
Aniztasunari erantzuteko materialak eskeintzen dira		
Ikasleak bizi diren ingurua eta testuingurua kontuan hartzen da ekintzak egiteko		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Ikas-egoerak diseinatzean Digitalizazio Plana kontuan hartzen da	IKT arduraduna BeAtarra eta IPD batzordea	IKT arduraduna		
Eskolako baliabide digitalak erabiltzen dituzte ikasleek.	Klaustroa	Batzordea		
Ikas-egoerak diseinatzen dira ikasleen interesgunetik hurbil.	Klaustroa	BeAtarra Zuzendaritza taldea		



EN ELKARLANA ETA NETWORKING

Helburua		
EN 1 IKT tresnak, espazioak eta denborak irakasleriari eskeintzea, lankidetzan lan egiten lagunduko duten esperientziak eta jardunbide egokiak konpartitzeko.		
Deskriptorea	Epea	
EN 1.2 Ezagutza trukatzeko ahaleginak errekonozitzen dira	2025/06/30	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Irakasle gehienak parte hartzen du diziplinarteko proiektuetan		
Aniztasunari erantzuteko materialak eskeintzen dira		
Ikasleak bizi diren ingurua eta testuingurua kontuan hartzen da ekintzak egiteko		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Esparru digitalak eta IKT tresnak ezartzea esperientziak elkartrukatzeko	IKT arduraduna BeAtarra eta IPD batzordea	IKT arduraduna BeA		
Pedagogia batordeak, ziklo zein maila batzarrak ere erabiltzea praktika onak elkartrukatzeko.	Klaustroa Zuzendaritza BeA	Batzordea BeA		
Bizi garen testuingurura hurbiltzea.	Zuzendaritza BeA	BeAtarra Zuzendaritza taldea		
Arrakala digitaletik sahiestea	Zuzendaritza BeA Elkartenet AMPA	BeA Zuzendaritza		



IB IKASTETXEKO BERARIAZKOAK

Helburua		
IB 1 Ikasleen beharretara eta ingurune sozioekonomikora egokitzea eta diziplina arteko proiektuak sortzea, talde-lana eta haren kohesioa sustatzeko.		
Deskriptorea	Epea	
IB 1.1 Amankomunean jarri diziplina arteko proiektuen diseinua (Ikas-egoerak)	2025/06/30	
IB 1.2 Aniztasunari erantzuteko materialak eskeintzea.	2024/2026	
Adierazlea	Mota	Helmuga
Diziplinarteko proiektuak diseinatzen dira digitalizazio alde garrantzitsua izanda.		
Aniztasunari erantzuteko materialak eskeintzen dira		
Talde-lana sustatzen da ongizate emozionala lortzeko		

Ekintzak	Baliabideak	Arduradunak	Epea	Egoera
Esparru digitalak eta IKT tresnak eskeintzen zaie irakasle zein ikasleei espeientziak elkar-trukatzeko	IKT arduraduna BeAtarra eta IPD batzordea	IKT arduraduna BeA		
Ikas-egoera egokiak disinatzen dira testuingurua kontuan hartuta	Klaustroa BeA	BeA		
Talde eta kohesio lana sustatzen da ongizate emozionala lortzeko	Irakasleria BeA	BeAtarra Ziklo koordinatzaileak		
Arrakala digitaletik sahiestea	Zuzendaritza BeA Elkartenet AMPA	BeA Zuzendaritza		



4. PROIEKTUAREN EBALUAZIOA

	Helburua	NOIZ ebaluatu	NOLA ebaluatu	NORK ebaluatu	Betetze maila	Hobetzeko proposamenak
LG	LG1 Tekno Pedagogia Batzordea sortzea eta funtzioak betetzen direla ziurtatzea. LG 2 Zuzendaritza-taldeak IKT koordinatzailearekin batera Plan digitalari bultzatzea	2025	Urteko planen bidez zein urteko memorien bitartez.	Tekno Pedagogia Batzordea. Zuzendaritza taldea. BeAtarra.		
II	II 1 Elkarlana eta talde lana bultzatu, ikasleen digitalizazio profila lortzeko	2026	Gelako memoria eta norbanakoaren txostenaren bitartez. Irakasleen zikloetan.	Irakasleria. Batzordea BeAtarra		
GP	GP 1 Irakasleriaren %80ak konpetentzia digitalean A2 edo B1 izatea.	2025	Informazioa bildu eta ehunekoa atera.	Tekno Pedagogia Batzordea		
EJ	EJ 1 Ebaluazio jardunbideak hobetzeko, ziklo-maila bakoitzean erabilgarriak izan daitezkeen IKT tresnak erabiltzeari bultzatzea.	2025	Zikloko koordinatzaileen bitartez	Irakasleria		



MIRIBILLA ESKOLA



Europar Batasuna
Europako Gizarte Funtza
“EGFak etorkizunean inbertitzen du”

48003-BILBAO-BIZKAIA

Tel. 944166820/fax944162073

015360aa@hezkuntza.net

AZ	AZ 1.Eskolako baliabide digitalak aztertzea eta berrizteko estrategiak planifikatzea, Hezkuntza eta berriztu programaren bitartez.	2023/2026	Irakasleriaren bitartez.	Tekno Pedagogia Batzordea IKT arduraduna		
EC	EC 1 Teknologia digitalen ezarpena partekatzea, ikasleen beharretara egokitzeko eta talde-lana sustatzeko.	2023/2026	Testuinguruaren analisiaren bitartez. Elkarlana bultzatuz Irakasleei galdera-sorta bitartez	BeAtarra Zuzendaritza taldea Tekno Pedagogia Batzordea		
EN	EN 1 IKT tresnak, espazioak eta denborak irakasleriari eskeintzea, lankidetzan lan egiten lagunduko duten esperientziak eta jardunbide egokiak konpartitzeko.	2025	Praktika onak partekatzearen emaitzak txostenean bilduta.	Irakasleria		
IB	IB 1 Ikasleen beharretara eta ingurune sozioekonomikora egokitzea eta diziplina arteko proiektuak sortzea, talde-lana eta haren kohesioa sustatzeko.	2026	Testuinguruaren analisiaren bitartez. Ikas-egoeraren bidez, lorpen adierazleak kontuan hartuta.	BeAtarra Klaustroa Zuzendaritza		